



NESTOR BASTERRETXE A ETA COLLAGEA, BUELTA BERRI BAT

ANE LECUONA MARISCAL
ARTEAREN HISTORIAKO GRADUA
EHU 2015/2016
TUTOREA: HAIZEA BARCENILLA

LABURPENA

Nestor Basterretxea artistak bere leku berezia du euskal artearen historiografia barruan. Chillida eta Oteizarekin batera, arte berri baten bideari ekin zion, euskal lehen abangoardisten belaunaldia sortuz, gure euskal kulturaren aparteko garrantzia irabaziz.

Eskultore paperarekin lortu zuen Basterretxeak gehienbat ospea, baina bere ekimen artistikoa askoz ere oparoagoa izan zen, marrazkigintzatik hasi zuen bere bidea, eta hortik kartelgintzara, eskulturagintzara, *collagetara*, arkitekturara, diseinu industrialera edota zinemara ere pasa zen, barne inpulso eta kuriositatea asetzearren.

Alabaina, artistaren alde desberdin guztiak ez dira era berdinean ikertuak izan; Nestor Basterretxearen proiektu asko aztertu gabe daude oraindik, fama lortu zuten beste lan askorekin gertatu ez den bezala. Oraingoan, ikertu barik aurkitzen den hutsune horietako bat betetzen saiatuko gara, alegia azken zahartzaro urtean burututako obraren atal batena.

Aipatzen dugun hutsartea osatzeko, artista berak azken urteetan emandako elkarrizketak izan ditugu batik bat iturri nagusi, haietan adieraziko baitzuen Nestor Basterretxeak bere arte berriaren nondik-norakoak, baita urduritzen zuten kezka pertsonalak. Hala iritsiko gara 2014 urtean burutu zituen *collageak* interpretatzera, izan ere *collagea*, marrazkigintzarekin batera, azken urteetako teknika erabiliena izan zuen. Horregatik, *collagearen* aukeraketaren zergatia lanaren protagonistetako bat bihurtuko zaigu, eta bestalde, artelan hauetan aurkituko ditugun formetan ere zentratuko gara, izan ere esanguratsua izango da artistak zirkulu formari eskainitako arreta berezia. Hortaz, zirkunferentziaren hautaketaren jatorria, adierazkortasun xedea eta honen atzean aurkitzen dugun artistaren interpretazio pertsonala ere gehituko dugu ikerketan. Bizitzako azken obretan zentratzearekin batera, guztiarekin artistaren ibilbidea nolabait borobiltzen ahaleginduko gara, hots, gure obrak aurreko garaietako arte jarduerekin erlazionatuz, traiektoria emankor baten ikuspuntu holista, osatua planteatu nahian.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2. NESTOR BASTERRETXEIA ETA <i>COLLAGEA</i> , NONDIK NORAKOAK.....	5
2.1. Artista eta <i>collagearen</i> erabilpena.....	5
2.2. Eraginak.....	8
3. 2014-KO <i>COLLAGEAK</i> , AZKEN OBRAK.....	9
3.1. Zirkulua, Euskal Artea eta ibilbide artistikoaren atzera begiratzea.....	10
3.2. Artistaren azken kezka existentzial-artistikoak.....	16
4. AZKEN ONDORIOAK	24
5. BIBLIOGRAFIA.....	26

“Cualquier punto y cualquier raya hacía surgir inmediatamente la sensación de perspectiva; se creaba la tercera dimensión real; era imposible moverse en dos dimensiones”¹.

Nestor Basterretxea.

1. SARRERA

Nestor Basterretxea artista 2014ko uztailaren 12an zendu zen. Euskal Herriak ezagutu zuen XX. mendeko artista esanguratsuenetariko bat izanik, bere agurra hurbilekoa zirudienean (bere adin nagusiarengatik), bizitzako azken urteetan bere figuraren inguruko omenaldiak, ikerketak, atzera begirako erakusketak edo lan biografikoak ugariak izan ziren. Lan adierazgarrienak aipatzearen 2013an Peio Aguirreren komisariotzapean izandako Bilboko Arte Ederren Museoko antologia, bere gaztaroko oroimenak liburu bihurtzea (*Crónica Errante y una miscelánea*, 2006)², erakundeen partetik jasotako sari desberdinak³, edo Gentzane Martínez de Osabak zuzenduriko bere bizitzaren inguruko dokumental biografikoa (*Señales de vida*, 2013)⁴ aurkitzen ditugu, beste askoren artean.

Oraingo lanerako, Basterretxea familiaren harrera on eta hurbiltasunari esker, Hondarribiako Jaizubia zonaldean, Nestor Basterretxea bere emaztearekin bizi izan zen Idurmendieta baserri-museora hurbiltzeko aukera suertatu zitzaidan. Bertan, artista bermeotarraren bildumaren zati handiena aurkitzen da egun, itzelezko eskulturez gain, zenbatezinak diruditen bi dimentsioko lanak gehien bat. Artelan kopuru masiboak ikusgarri bihurtuko du artistaren sortze-prozesua bisitariaren begietan, alegia esku trebeziaren bidezko etengabeko formen eta hauen elkar harremanen inbestigazio jokoa.

Hala, artistaren lanera hurbiltzeko bi elementu nagusi izango ditugu kontuan, hauek bere ibilbidean zehar presente egon direlako, baina batik bat azken urteotan zentzu berezia hartu zutelako: *collage*aren teknika eta zirkulua. Modu horretan iritsiko gara aurretik inoiz aztertuak izan ez diren azken urteko hainbat *collage* landu eta interpretatzera; eta

¹ PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea. Artistas Españoles Contemporaneos*. Madril, Servicio de publicaciones del ministerio de Educación y Ciencia, 1975, 20.orr.

² GOLVANO, F., “Basterretxea, un artista moderno y multidisciplinar”, *El Diario, sl*, (2014-07-12), http://www.eldiario.es/norte/vientodelnorte/Nestor_Basterretxea-pintor-escultor-cineasta-nacionalismo-moderno-Gaur-Equipo_57_6_280731931.html Azken kontsulta: 2016-04-09

³ GASTACA, J.M. “Muere Nestor Basterretxea. La raíz vasca de un creador universal”, *El País*, Bilbo (2014-07-12), http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/07/12/paisvasco/1405162287_442849.html Azken kontsulta: 2016-04-21

⁴ http://www.sansebastianfestival.com/secciones_y_peliculas/7/623773es Azken kontsulta: 2016-04-21

horretarako, obren azterketa formalarekin batera, artistak azken urteetan emandako elkarrizketak izango ditugu iturri nagusi. Betiere irakurketa hori egiteko, bere aurreko lanaren inguruko bibliografiaz baliatu gara, horrela ikuspegi edo zentzu borobil eta osatuagoa emateko, alegia *collagearen* garrantzia eta zirkuluaren ikonografia sakonago aztertzeke.

2. NESTOR BASTERRETXEA ETA *COLLAGEA*, NONDIK NORAKOAK

2.1. Artista eta *collagearen* erabilpena

Basterretxearen artearen oinarriak formak izan ziren, gehienbat modularrak eta geometrikoki ordenatuak, baina hauek artelanaren egiazko protagonistaren osagai zen espazioa aurkitzeko baliabide ziren soilik, beraz artistaren ekintza espazioa eta honen muga definitzen zuten elementu guztien arteko harmonia eta elkarrizketan zetzan⁵.

Kontuan hartzekoa izango da artistak gaztaroan pasa zituen erbeste (1942-1952) urteak, izan ere denboraren perspektibarekin jabetuko zen paradoxikoki Argentinan, Rio de la Plataren ibaiertzean, euskal kultura jatorrizko lurraldean egongo balitz baino intentsitate eta askatasun gehiagorekin bizitzeko aukera izan zuela⁶, ondorengo ekimen artistikorako funtsezkoa izango zena.

Teknikaren inguruan, azken urteetan, Nestor Basterretxea kezkatzen zituen gaiak jorratzeko, ohiko marrazketarekin batera *collagea* izan zuen gustuko lan teknika. Izan ere lerro eta formen diseinua, material desberdinen portaera eta elkar topo eginez sortzen ziren erliebe eta perspektiba oihartzuna iradokitzen laguntzen zion teknika azkar, erraz eta eskuragarriena izan zuen. Hau da, plano bidimentsional batean aipatzen genuen hirugarren dimentsioa ikusgarri bihurtzeko baliabide aproposena.

Azaldu bezala nahiz eta inoiz ez marrazkigintza alboratu, tintaren teknikan aurkitu zituen mugek bultzatu zuten Basterretxea *collagearekin* saiatzera. Teknika aldaketa prozesu honen atzean, eskulturgintzarako emandako pausoarekin lotu genezakeena, faktore desberdinen artean bat nabarmenduko zaigu, eraikitzearen ideia. Izan ere forma estilistiko

⁵ MORENO GALVÁN, J. M., *Néstor Basterrechea*, Madril, Sala Neblí, 1960, z/g.

⁶ BASTERRECHEA, N., "La libertad se llama America", in ASCUENCE ARRIETA, J.A.; SAN MIGUEL, M. L. (koor.), *Los hijos del exilio vaso: arraigo o desarraigo*, Donostia, Saturrarán, 2004, 193-194.orr.

geometrikoen bidez lortutako erredukzionismoaren azpian, esentzia konstruktibisten *faktura* -azalaren itxura materiala-⁷, tektonika eta eraikuntza printzipioen behin-behineko barneratzea zegoen⁸. Espazioaren analisisa konstante bat bihurtu baitzitzaion batik bat 60. hamarkadatik aurrera. Plano lau batean zeinu edo kolore bat sartzeak espazioa nola sortzen zuen aztertu zuen.

Azpimarragarria izan zen oinarri baten gainean forma materikoak kolatzearen teknikak artistari eskainitako askatasuna. *Collagea* errealitatera hurbiltzeko -edo aldentzeko- modu desberdin bat litzateke artistaren eskuetan, hizkuntza zehatzenetik abstraktueneraino edo koloreen autonomia eta materialen aberastasunekin jolastera eramanez⁹. Nahiz eta *collagearen* erabiltzearen abiapuntua interes fisiko bat izan, bide edo helburu desberdinak hartuko zituen denborarekin; hauetako batzuk guztiz obra bukatuak ziren, eta beste hainbat aldiz, osterako proiektuetarako bozeto funtzioa zuten.



1. irudia. *La noche-Gaua*, 1960, burdina pintatua, 57cm (diametroa).

Collagea obra amaitu bezala lantzen jada 1960an Madrilgo *Nebli* aretoan eginiko esposizioan antzeman zen non ordu arteko bidimentsionaltasun garbitik askatzeko beharra ikusgarria izan zen aurkezturiko *collage*, baxu-erliebe eta eskultura lauetan (1. irudia), baita ondoren landuko dugun zirkuluaren sinbologia ere. Esaterako, “*Plano estallado*” izenburu poetikoarekin artistak bere nahia bikain laburtua utziko zigun¹⁰. Orduetik

aurrerako lan ugari, artistaren teknika aldaketen joan-etorrien arabera, *collage* “amaitu” bezala ulertzen ditugun obrak izango ziren eta nahiz eta tradizionalki bestelako teknikez eginiko obren bigarren maila batean kokatu, hainbat erakusketa burutu ziren teknika honetako artelan finak erakutsiz, hala nola 1996an Iruñako Lekunen Galerian edo 2003an

⁷ FER, B.; BATCHELOR, D.; WOOD, P., *Realismo, Racionalismo, Surrealismo. El arte de entreguerras (1914-1945)*, Madril, Akal, 1999, 104.orr.


⁸ CATALAN, C., *Nestor Basterretxea. Esculturas – collages – dibujos - grabados*, (erakusketa Iruñako Lekune Galerian, 1996ko maiatzaren 30tik uztailearen 3ra), Iruña, I.G. Castuera, 1996, 5.orr.

⁹ BANDRÉS GOLDÁRAZ, M^a A., *El collage como instrumento de rescate: realidad, medios de comunicación de masas y memoria. Implicaciones en la práctica artística*, Leioa, Facultad de Bellas Artes, Universidad del País Vasco, 2014, 28.orr.

¹⁰ AGUIRRE, P. (kom.), *Nestor Basterretxea: forma y universo* (erakusketa Bilboko Arte Ederren Museoan, 2013ko otsailetik maiatzera), Bilbo, Bilboko Arte Ederren Museo, 2013, 84-85.orr.

Irungo Menchu Gal esposizio aretoan izandakoak. Azken honetan esaterako 1970tik 2013ra buruturiko obrak bildu ziren, marrazkigintza eta *collagean* zentratuz. Bertako katalogoa miatuz soilik, ikusgarria izango zaigu artistak material eta adierazgarritasun teknika diferenteak uztartzeko zuen gaitasuna. Material eta ehundura desberdinen arteko solasaldia alde batetik eta bestetik arkatza, errotulagailuaren tinta, ikatz-ziri eta paper zurrunaren eta kartoi gaineko koloredun arkatzez egindako marren konposizio jolasa¹¹. Hala ere, nahiz eta teknika aldaketa jolasaren hasierarekin etorkizunerako bide berriak ireki, gogoan izan behar dugu Basterretxeak ez zuela bere margolari jatorria inoiz ahaztu, berak zioen moduan, marrazketa zen betiere bere bilaketa artistikoaren oinarritzko ardatza¹².

Baina aurreratu bezala, bestelako helburu bat jarraitzen zuten *collageak* ere burutu ohi zituen. Eremu hau ulertzeko, Basterretxeak gaztetatik arkitekturarako izan zuen grina aipa genezake. Penaz garaiko zirkunstantziak zirela eta goi mailako ikasketak burutzeko aukerarik ez izanagatik, eraikuntzarako interes horrek bere bide propioa aurkitu zuen denborarekin. Berak esan bezala “*No es que ahora me dedique a la arquitectura. Simplemente, me he dado cuenta de que la arquitectura estaba ahí, en mi escultura*”¹³. Bere obretan arnasten zen espazioaren sistematzea eta eraikitze ideien ondorio bat izango



2. irudia. *Izenbururik gabea*, 2000, collagea, 29,6 x 42cm.

ziren beraz artistaren arkitektura saiakerak. Bere anaia arkitektoarekin zenbait lan burutzeko aukera izan zuen, baina eraiki gabe geraturiko proiektuak ugariak ziren ere. Basterretxearen arkitekto papera hobekien azalduko zuten lanak “*Volumetria arquitectónico*” bezala izendaturikoak izan ziren.

Termino aproposa berriro ere, izan ere ordu arte batik bat eskultura planimetrokoak zirenetan, orain

hirugarren dimentsiorako behin-betiko saltoa ikusgarria zen¹⁴. 1957tik 2003ra zabaltzen ziren saiakera ausart hauek (2. irudia) ikusgai egon ziren Donostiako San Telmo Museoa

¹¹ ELBUSTO CABELLO, H. (zuz.), *Nestor Basterretxea* (erakusketa Irungo Menchu Gal Esposaketan aretoan, 2013ko martxotik uztailean), Irun, Irungo Udala, 2013, 3.orr.

¹² *Ibid.* 2.orr.

¹³ MUÑOZ, J. (koor.), *Nestor Basterretxea: bolometria arkitektonikoak / volumetrias arquitectónicas*, (erakusketa Donostiako San Telmo Museoa, 2003ko apiriletik ekainera), Donostia, Donostia Kultura, 2003, z/g.

¹⁴ AGUIRRE, P. *Op cit.*, 162.orr.

2003an izandako erakusketan¹⁵. Fisikoki burutu gabe eta helburu erabilgarria zuten proiektuen bozetoak ziren, tinta, arkatz, ikatz-ziriz, kartulina eta paper inprimatuz eginiko marrazketa eta *collageak* batik bat. Beraz arestian aipatu bezala, bistakoa izango da arkitektura apustu hauetarako artistak Picassok 1912 urtean estreinatutako teknikarengan aurkitutako erosotasuna, bai teknika erraztasunarengatik, baita ondorengo proiektuen material eta testura hartu-emanak lehen momentutik ikusgai bihurtzeko.

2.2. Eraginak

Euskal Eskolako artistek, Basterretxea barne, lengoia geometriko, abstraktu eta esentzialista bereganatu zuten beraien proposamenetarako, begirada XX. mendeko abangoardia konstruktibistetara luzatuz. Ez da momentua izango Europako nazio desberdinetan zehar emandako eskola eta proposamen konstruktibistak aztertzeke ezta alderatzeko ere, aldiz planteamendu guzti hauengan hauteman daitekeen parekotasuna edo mamia izango zaigu baliagarri, Oteiza, Chillida edo Basterretxeak beraiengan aurkitu zuten errekurtsio estetiko ulertzeko. Ideologia, gizarte eta testuinguru zehatzak kontuan izan gabe, Errusiako konstruktibismotik hasi eta ondorengo mugimendu desberdinetan garatu ziren taldeetan (neoplastizismoa, suprematismoa arrazionalismoa, ...)¹⁶ artelana eraikuntza objektu bezala ulertu izanaren funtsa izango zaigu interesgarri oraingoan. Gizarte komunistak arteari exijitzen zion utilitarismotik harago joanez, garatutako estiloa edo lengoia Europa osora zehar zabaldu zen; izan ere modernotasuna ordena, zehaztasuna, kontrola eta klasikotasunaren sinonimo bihurtu zen, mende hasieran Frantziatik abiatutako joera dekoratzaile, ornamentuzko eta efimeroekiko etsaitasuna sortuz. Hala, proposatu zituzten eraiketa artistiko hauek “sistema” modura funtzionatzen zuten, esanahi edo zentzu definitu edo konbentzionalen menpe egoteaz baino, beraien izaera abstraktuaren askatasunaz guztiz baliatuz¹⁷.

Eraiketa ideiak, artelanaren osotasuna edo sistema eratzen zuten elementu desberdinak bere kabuz balorea lortu eta elkar banatu zitekeela adierazi nahi zuen, hau da lerroak, koloreak, planoak, espazioa eta materialak bakarka ikertu, analizatu eta berriro elkartzeko aukera¹⁸. A. Rodchenko (1891-1956) artista errusiarrek aldarrikaturiko lerroaren

¹⁵ MUÑOZ, J. *Op cit.*, z/g.

¹⁶ FER, B.; BATCHELOR, D.; WOOD, P., *Op cit.*, 92.orr.

¹⁷ *Ibid.* 99-103.orr.

¹⁸ SAN MARTÍN, F. J.; MORAZ, J., L., *Oteiza Laboratorio de papeles*, Orkoien, Fundación Museo Oteiza Museo Fundazioa, 2006, 26.orr.

protagonismoa interesgarria izango zaigu ere. Lerroa eraikuntza sistemaren oinarriko elementu bezala identifikatu zuen, guztiaren eskeletoa, plano desberdinen harremana, eta aitzitik mugimendua, kolpea, elkartzea, haustura eta jarraipena ere adierazi zezakeena zitzaion, oinarriko lehengaia alegia¹⁹.

Beraz, hizkuntza geometriko esentzialistak modernitateari emandako baliabide formala izugarria izan zen, hala ere esan ohi izan da konstruktibismotik eratorritako ondorengo joera artistikoek honen apaindura edo gainazal formala soilik barneratu zutela²⁰. Aldiz, esan genezake bai Oteiza edo Basterretxearen lanetan artista konstruktibistek aldarrikatutako lexiko edo teoria formalak bere osotasunean ulertu zituztela, aberastasun estilistikoa beraien aldarrikapen sozialak burutzeko tresna bihurtuz²¹.

Gure artistak atzerriko mugimendu artistikoen proposamenen ezagutza osoa zutela jakina da, horren ikusgai izango ditugu esaterako Oteiza Museoa artxibaturik dauden artista oriotarraren milaka esku zirriborro eta idatzi²², baita agerraldi publikoetan bi artistek emandako hitzaldiak edota beste hainbat aldarrikapen. Abangoardietatik ikasitako erredukzionismoaren bidez esentzia bilaketa bideratuko zuten beraz artista euskaldunek, hala esentzia eta zentzu euskaldunaren zeinua aurkitu eta ikusgai bihurtuz, hori izango baitzen bere ekintza artistikoaren muina, ondoren ikusiko dugun bezala.

3. 2014KO COLLAGEAK, AZKEN OBRAK

Eskura izandako artistaren *collage* edo lan misto guztien artean aukeraketa bat egitea zaila izan da, bai lan kopuru handiarengatik baita obren arteko homogeneousotasun eskasarengatik. Hori dela eta, azkenik 2014 urteko hainbat obra hautatu ditugu lanerako, urte hasieratik bere azken egunetarako tarte kronologikorako epealdikoak, hots urtarriletik uztaileko aldikoak, Nestor Basterretxea uztailearen 12an hil baitzen, 90 urte zituela. Guztira hogeita hamar *collage* osatuko dute hilabete hauetako produkzioa eta korrelazio, lotura bat planteatzearen hauetatik hamasei hautatu ditugu. Izan ere *collage* hauetan, etengabe aspalditik urduritzen zuen forma bat landuko zuen etengabe, zirkulua.

¹⁹ *Ibid.*, 112-113.orr.

²⁰ *Ibid.*, 99.orr.

²¹ CATALAN, C., *Op cit.*, z/g.

²² <http://www.museooteiza.org/catalogos/documentacion/buscar.php?bd=fondod>
2016-04-23

Azken kontsulta:

Hauetan, hondo neutro batean ardatz papera hartzen duen zirkulua txertatuko du eta honi bestelako elementu eta forma geometriko baita organikoak gehituko dizkiola ikusiko dugu, obra bidimentsionalean zantzu espaziala sortuz. Gainerako obrek bestalde, artistaren ibilbidearen atzera begiratzearen sintesia burutzeko tresna izango genituzke, baina tamalez lanaren luzera eta helburuak direla eta, hauek ez dute merezi duten atentzioa jasoko oraingoan.

Hala beraz, ondoren deskribatuko ditugun obren interpretazio txukunerako bi elementu nagusietan zentratu gintezke, batetik artista eta betidanik izandako zirkuluarekiko interesa eta honen nondik-norakoak, eta bestetik 90 urteen pisu moralak ekarri zizkion kezka eta beldurrak.

3.1. Zirkulua, Euskal Artea eta ibilbide artistikoaren atzera begiratzea

Zirkuluaren forma eta Nestor Basterretxearen artea eskutik doazela esan genezake. Hainbatetan hitz egin zigun artistak forma honen aukeraketaren inguruan. Hitz gutxitan esanda, zirkunferentzia naturako forma guztienetatik, bikaintasunaren gailurrera iristen zena iruditzen zitzaion. Perfektua, hala definitzen zuen²³.

Ez da harritzekoa izango beraz, Basterretxearen ibilbide luzean zehar behin eta berriro zirkuluaren diseinuarekin topo egitea. Formarekiko hurbilpena Jorge Oteiza aholkulari, babesle eta lagunaren bidez eman zuen. Bioi zirkunferentziaren lerro amaiezin eta sakratuaren sinbolizazioa interesatzen zitzaien eta nola esentzia ideal hori jada historiaurreko gizarte primitiboek garatu izan zuten. Bide honetatik iritsi zen Oteiza *cromlech* euskaldunetara, alegia neolito garaiko euskal lurraldeetako gizarteek eginiko harrizko eskultura edo konplexuetara, lurrean zirkulu bat margotuz espazio sakratu bat iradokitzen zutenak²⁴. 1963 urtean, Jorge Oteizak lehen aldiz *Quosque Tandem...! Ensayo de interpretación Estética del Alma Vasca* arte-teoria liburua argitaratu zuen, bere hipotesi eta pentsamendu guztiak argitu eta adierazteko sentitzen zuen beharraren behinbetiko emaitza izan zena²⁵. Bertan adierazi zuen esaterako nola bere ustetan, espezialistek

²³ TECNUM. (2011-06-16). "Nestor Basterretxea: Del plano al espacio (HD)" (artxibo bisuala), <https://www.youtube.com/watch?v=AuGksg5-7oE> Azken kontsulta: 2016-04-08

²⁴ VADILLO EGUINO, M., "La búsqueda de una identidad estética en el País Vasco. La creación de un nuevo imaginario vasco (1960-1980)", in *Congreso Internacional Imagen Apariencia*, Universidad de Murcia, 2008ko azaroan, Universidad de Murcia, 2009, 7.orr.

²⁵ ECHEVARRIA PLAZAOLA, J., *La finalidad de Arte. La obra y el pensamiento de Jorge Oteiza: arte, estética y religión*, Bartzelona, Universitat Pompeu Fabra, 2008, 215.orr.

cromlechen inguruan emandako interpretazioak okerrak ziren. Oteizarentzat ez ziren komunitateen hileta espazioak, baizik eta “huts errepikatuak”²⁶, helburu praktikorik gabeko babesleku espiritualak besterik ez -eskultura deituko genukeena-, eta bertan euskal esentzia, estilo edo sentimenduaren sorrera edo erroaren hazia aurkituko zen²⁷.

Hortaz *cromlech* neolitikoa arkitektura erlijiosoaren lehen aurrerapena izango zen Oteizarentzat eta bertan ematen zen hutsa, elementu gehigarrien adierazpenen ezeztatzea, maila pertsonaleko intimitate espazioa²⁸. Hori dela eta, artistaren eginkizuna sustrai edo esentzia hori azaleratzea, ikusgai bihurtzea eta sortu zuen gizartera berriro ere bueltan ematea zen oriotarraren aburuz. Kontziente baitzen nola ahozko tradizioetan ez bezala (mitologia edo hizkuntza propioa izanik), euskal kulturak ez zuela apenas berezko imajinarik.

Ezinbesteko teoria izango zaigu Nestor Basterretxearen ibilbide artistiko osoa ulertzeko. Hau da, euskal herritarren jatorrirako bidaia bat planteatu zuten, ez nostalgia sentimendu batek bultzaturik edo gizadiaren historia ahazteko, baizik eta ahantzia genuen geure izaera telurikoa azaleratzeko, geure buruei galdera eta erantzunak egitera behartzeko eta indar suspertuekin bide berria eraikitzen hasteko²⁹. Sustraietarako atzera begiratze hau, orainaldi ezatsegin eta zalantzazko etorkizun ideiek sentiarazi zitzaizkiren beldurraren emaitza ausart bezala ulertu behar dugu, ez amaren sabelaren babeserako buelta gisa. Primitibismorako interesa eta euskal identitate bilaketa izan zen beraz Oteiza eta alboko artisten arte planteamendu abangoardista.

Kontuan izatekoa da oraindik diktadura frankistaren marko historiko-sozialean kokatu beharra dugula, non sormen eta abertzaletasun aldarrikapenak guztiz mugaturik zeuden, gainera ETA talde terroristaren lehen manifestaldiak eman ziren³⁰. Alabaina kate horiek, paradoxikoki, indar berriak suspertuko zituzten denbora gutxian³¹. Pixkanaka hirurogeigarren hamarkadatik aurrera, irekidura apal bat arnasten hasi zen, esate baterako

²⁶ OTEIZA, J., *Quousque Tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*, VEGA, A. (koor.), V. Ed., Alzuza, Fundación Museo Oteiza Fundazio Museoa, 2007, 132.orr.

²⁷ ECHEVARRIA PLAZAOLA, J. *Op cit.*, 172.orr.

²⁸ OTEIZA, J., *Op cit.*, 143.orr.

²⁹ ARTAMENDI, MUGUENA, J. A., “El arte de Nestor Basterretxea”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 34.zkia., 31, 2, (1986), 458.orr.

³⁰ GUASCH, A. M., *Arte e ideología en el País Vasco: 1940-1980*, Madril, Ediciones Akal, 1985, 92.orr.

³¹ VADILLO EGUINO, M., *Op cit.*, 2.orr.

historia eta kultura berreskurapen ikerketa jardueren igoera eman zen, Telesforo de Aranzadi edo Jose Miguel Barandiaranen lan etnografikoak kasu, ostera arte mailan eragin handia sortu zutenak³². Beraz tentsio klima horrek identitate bilaketaren prozesua duda gabe indartu egin zuen eta bilaketa horretan, euskal artistek gogor egin zuten lan, beraien obrekin proiektu eta etorkizun moderno bat defendatzearen. Arteak funtzio kolektibo bat izatera pasa zela esan genezake³³. Aldaketa nahiaren erakusle izango ditugu urte horietan sortu ziren mugimendu artistiko ezberdinak, esaterako *Equipo 57* taldea (1957), *Estampa Popular de Vizcaya* mugimendua (1962), *Arte actual* taldea (1964); eta bestetik Bilboko Arabako Arte Ederren museoan ate irekitzea eta berrantolaketa, espiritu moderno horren distira jarraipen bezala uler genezake. Azkenik, hamarkadako arte saiakera ausartena *Euskal Eskola* edo *Escuela Vasca* ekimena izan zen, Donostiako Barandiaran galeria taldearen babesle ekonomiko eta egoitza izan zuelarik (1965-1967). Taldeak erkidego desberdinetan banatuz funtzionatu zuten eta hauetatik *Gaur* azpitalde gipuzkoarra izan zen emankorrena, non Jorge Oteiza maisu edo teorialari zela, Eduardo Chillida edo Nestor Basterretxea bezalako figura apartak elkarlanean funtzionatu zuten³⁴.

Azalduriko garaiko testuinguru sozio-politikoaren kontzientzia izatea ezinbestekoa izango da Nestor Basterretxearen obretara hurbiltzeko, euskal gizartea oinarri eta helburu zuten lanak zirelako; batik bat 60. hamarkadatik aurrera, estilo espresionista intimista alde batera utzi eta komunikatiboagoa bihurtu baitzen³⁵. Motibazio zehatz horrek –euskal gizarteak- kausa edo zergati bat izango zuen atzean, beharra alegia, gizartearen oihu edota isiltasunaren bidez agerriko zena³⁶.

Hala ere, nahiz eta proposamen teoriko baita estilistiko hauek itxuran eremu, herri eta identitate zehatz batean errotu, Basterretxea eta inguruko artisten planteamenduak izaera unibertaria zuten, arazo transzendentetara eramango gintuzketelarik³⁷; eta horretarako

³² SARRIUGARTE GÓMEZ, I., “El arte como herramienta para la construcción de una identidad nacional: el caso vasco”, in BAREMENDI, J.; BAZ, M^a. J. (koor.), *Iº Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*, Logroño, 2007, 12-14.orr.

³³ GOLVANO, F., *Disidencias otras: poéticas y acciones artísticas en la transición política vasca: 1972-1982*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005, 17.orr.

³⁴ GOLVANO, F. (kom.), *70ko Laborategiak. Poetikak / Politikak eta Modernitatearen krisia 70eko hamarkadako Euskal Herrian*, (erakusketa sala Rekalde erakustaretoan, 2009ko maiatzetik irailera), Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia/Rekalde Aretoa, 2009, 19.orr.

³⁵ PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea...*, 18-19.orr.

³⁶ ARTAMENDI, MUGUENA, J. A., *Op cit.*, 455-457.orr.

³⁷ VADILLO EGUINO, M., *Op cit.*, 7-8.orr.

aukeraturiko hizkuntza estetiko aipatutako abstrakzio formal bat izan zen, nazioarteko joera artistiko abangoardistekin lotura eraikiz³⁸.

Zirkunferentziaren gaira itzuliz, *cromlech* adibidearekin batera, beste pilare garrantzitsu bat aurkitu zuten iraganeko kultur ondare euskaldunean, hilobi-estelak alegia. Historiaurreko estela zirkularrak eta hauen barneko diseinu natural geometrikoak (lauburua esaterako) lehen maila batean arte zeltikoarekin lotu genituzkeenak, era harrigarrian Burdin Arotik gaur egun bitarte euskal kulturaren mantendu egin dira, hala nola hilobi-esteletan edo mahai eta altzarien dekorazioetan. Arima euskaldunak dekorazio abstraktu honetan bere imajinazio sormenerako aukera aurkitu zuela pentsa genezake³⁹.



3. irudia. *Estela a Guernica*, 1979, brontzea, 35,5 x 44,5.

Estelen balorazioa Basterretxeak eta gainerako abangoardista euskaldunek jaso zuten bezala ulertzeko, berriro ere Jorge Oteizaren hausnarketetara bueltatu gaitezke; eta horretarako 1956 urteraino egin beharko dugu salto, Jorge Oteizak Luis Vallet arkitektoarekin batera, Agina mendiko tontorrean Aita Donostiaren omenaldiaren eskultura enkargua jaso zuten momentura. Garai goiztiarreko eskultura honetan jada ikusgarri zen antzinateko euskal estelen gai primitiboa lengoia abstraktu, geometriko eta arrazionalisten bidez nola berrinterpretatu zuten, “Malevitchen unitateak” oroitaraziz⁴⁰. Formalki hilobi-estelen zirkulua mantentzen zen, kasu honetan argi edukiontzi moduan, zein argia jaso eta eguzki diskoa iradokitzen zuen, baina berak esan bezala, guztiz irudi moderno -eta euskaldun- baten bidez⁴¹. Beraz sinbologiaren garbitasuna lortzeko, formen erredukzionismoa erabili zuten, forma eta edukiaren dualismo bat lortuz⁴². Basterretxea berak nahiz eta bere burua ateo izendatu, bere obra osoan zehar esentzia sakratua harriduraz aurkitu zuela adierazi zuen eta sakralizazioak eskaintzen zion askatasuna eta imajinazioa zuela gustuko⁴³.

³⁸ SARRIUGARTE GÓMEZ, I., *Op cit.*, 18.orr.

³⁹ PLAZAOLA ARTOLA, J., “El primer arte abstracto”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 44, 2, (1999), Deusto Unibertsitatea, Donostia 389.orr.

⁴⁰ ZUAZNABAR, G., *Piedra en el Paisaje*, Alzuza, Fundación Museo Jorge Oteiza Fundazio Museoa, 2006, 25.orr.

⁴¹ VADILLO EGUINO, M., *Op cit.*, 6-26.orr.

⁴² AGUIRRE, P., *Op cit.*, 24.orr.

⁴³ *Ibid.*, 32.orr.

Hortaz zirkulua ez dugu soilik euskal gizartearen edo urte batzuek beranduago artistak ikertu zituen indigena komunitateen historiaren jatorriaren bilaketarekin lotu behar, hori erreferentzia figuratibo baten menpekotasuna adieraziko baitzuen, baizik eta kosmosaren historiaren *poiesis*arekin, iragan atemporal baten bilaketarekin. Hau da, gizakiaren sinbolizazio eta kontzepzio prozesuaren aurreneko aldia gogoraraziko digu zirkuluak, lehen errealitate pururako bidaia imajinatiboa⁴⁴, zirkuluaren eta euskal esentziaren zentzuaren elkartzea beraz. Hala, artea edo prozesu estetikoa, gizakia eta naturaren arteko distantzia gainditzeko baliabide bezala ulertu zuten, hau da gizakiak bizitza “naturalizatzeko” aurkitu zuen modua⁴⁵.

Bide honetatik, Basterretxearen obretan, gatazka izan gabe eta obren koherentzian eragin gabe, elementu figuratibo eta abstraktuen arteko lotura aurkituko dugu, zera, forma eta ideien arteko lehen bistako tentsioak dakarren orekaren gaineko hausnarketa⁴⁶. Arazo filosofiko konplexuetara bideratuko gaitu beraz artistaren zirkuluak, Frankfurtoko eskola filosofikoarekin⁴⁷ eta Ernst Cassirer edo G. Duranden filosofia sinbolisten teoriekin ere lotu ditzakegunak, zeintzuk mitologia, etnografia eta sinboloen arteko hartu-emana landu zuten.

Ikusi bezala, Oteizaren ibilbide eta proposamenak erreferentzia, *autoritas* moduko bat izango zaigu Nestor Basterretxearen lanak aztertzeko, ukaezina izango baita bere eragina. Bi artisten arteko harremana oso estua izan zen⁴⁸. Erbeste urteetan elkar ezagutu ondoren⁴⁹, penintsulara bueltan, 1952 urtean Oteizak Arantzazuko proiektuan sartzeko lehiaketan parte hartzeko animatu zuen Nestor gaztea eta ordutik aurrera artisten erlazioa betirako mantenduko zen. 1957 urtean bi artistak Madrilen egon ziren finkaturik, Huarte familiaren babespean⁵⁰. Urte garrantzitsua izan zen orduan margolari zen Basterretxea eta Oteiza eskultorearentzat, biak *Equipo 57* talde abangoardistan biziki sarturik baitzeuden, nahiz denboraren aldetik bakoitzaren parte hartzea laburra izan.

⁴⁴ PLAZAOLA ARTOLA, J., “El primer...” 455-456.orr.

⁴⁵ JIMENEZ DE ABERASTURI APRAIZ, E. (koor.), *Acercarse a Oteiza*, Donostia, Editorial Txertoa, 2004, 138-138.orr.

⁴⁶ CATALAN, C., *Op cit.*, z/g.

⁴⁷ AGUIRRE, P., *Op cit.*, 30.orr.

⁴⁸ PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea...*, 15.orr.

⁴⁹ BASTERRETXE, N., *Crónica errante y una miscelánea*, Zarautz, Alberdania, 2006, 223.orr.

⁵⁰ JIMENEZ DE ABERASTURI APRAIZ, E., *Op cit.*, 43.orr.

Oteizaren planteamendu hauek Basterretxearengan sortu zuten eragina aztertzeko, Madril ondorengo elkarbizitza urteetan zentratu behar gara. Jada 1955an hasi ziren biak Irunen etxe-lantegi bat burutzeko proiektuarekin, azkenean Luis Valleten esku amaitu zena; honela 1960an, bi artistek eta haien familia kideek Madrildik Euskal Herrira buelta egitea ahalbideratuz⁵¹. Garrantzitsuak izango dira datu biografiko hauek izan ere urte horietan berrikuntza eta aldaketa artistiko nabariak suertatuko ziren, orduan finkatuko baitzen Basterretxearen abentura konstruktibista eta espaziala, ondorengo ibilbide artistiko guztiaren hastapena izan zena⁵². Urte berdinean eman zen aurretik aipatzen genuen bi artista euskaldunen *Nebli* aretoko erakustaldia, eta bertan esan bezala, ikusgarria izan zen jada planoen kurba eta itzalekin jolastuz, disko-formako eskultura lauen bidez, ondoren hainbeste maitatu eta aldendu ezingo zuen zirkulu forma⁵³.

Orokortu genezake 1960 urtetik aurrera, Irunen finkaturik, bere norakoak behin-betikoz aldatu eta bere estilo pertsonala guztiz definitu zuela. Fronte desberdinek eragingo zuten aldaketa hori, batetik urte askoren ostean hainbeste maite zuen Euskal Herrian finkaturik aurkitzea -ondorengo arte produkzio osoaren muin eta inspirazioa bihurtuko zitzaiona-, bestetik Jorge Oteiza laguna alboan izateak bere emankortasun artistikoan ondorioak izan zituen ere, eta azkenik, bere sormen prozesuan teknika berrietan murgiltzen ausartzea. Urte hauetan eman zuen plano lautik hiru dimentsioko eskultoretako behin behineko jauzia, *Biok* altzari enpresa sortu zuen edota zinema teknika lantzeko adorea erakutsi zuen besteak beste⁵⁴. Esan daiteke beraz artistaren garai emankorrena izan zela, bere alde polifazetiko eta asmatzailea, inoiz baino ikusgarriagoa izan baitzen.

Hala baina, egia da Basterretxea eskulturarengatik izan dela batez ere ezagun 70.hamarkadatik aurrera, eta esparru hori izan dela ikertuena. Hala ere, gure interesera bideratuz, azter genezake eskulturagintza eta *collage*aren tekniken arteko lotura⁵⁵. Lehena materialaren aukeraketaren garrantzia litzake. Erreferentzia egiten genuen nola Euskal abangoardiako artistek beraien artea euskal sustrai eta jatorriaren interesean txertatu zuten. Horregatik, *Serie cosmogónica vascan* (1973), gaia eta formekin batera, materiala garrantzi aparteko osagaia izan zen euskal imajinaziozko mundua ikusgai -eta ukigai-

⁵¹ ZUAZNABAR, G., *Op cit.*, 12-14.orr.

⁵² PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea...*, 19.orr.

⁵³ AGUIRRE, P., *Op cit.*, 84-85.orr.

⁵⁴ *Ibid.*, 92-93.orr.

⁵⁵ PLAZAOLA, J., "*Nestor Basterrechea...*", 30-31.orr.

bihurtzeko. Egur tailatuz egin ziren eskulturak, artisautzaren tradizio euskaldunari erreferentzia eginez eta bestalde egur mota guztietatik haritza aukeratu zuen, guztietatik “nobleena” kontsideratua izan delako gure historian, sinbolo nazionalista izateaz gain. Eskultura seriea tailaketaz egin ziren baina ez zituen artista berak burutu, arotz profesional batek baizik; artelanean diseinatzaile, forma eta ideien sortzaile papera hartu zuen hortaz Basterretxeak, bere lan tresna papera eta tinta zela gogoraraziz⁵⁶.

Materialekiko interesa berezia ikusiko dugu Basterretxearengan, koloreekin gertatzen den bezala. Jada *Nebli* aretoan (1960) eginiko esposizioaren osterako kritika batean goraipatu zuten artistak egungo material tipikoen aukeraketa eta nola materialen aldaketa minimo baten bidez lortzen zituen konbinaketa espresibo handiak⁵⁷. Ezaugarri honek Tatlin artista konstruktibista errusiarra gogorazi diezaguke, izan ere lehena izan zen Picassoren Parisko estudioa bisitatu ostean, materialen espresio indarrean zentratzen hasi zena eta bide horretatik material desberdinak era guztiz zuhurrean erabiliko zituen, azkenik soilik metala eta egurra erabiltzen amaituz, betiere forma karratu eta borobiletan⁵⁸.

3.2. Artistaren azken arte-bizi kezkak

Lanaren muina 2014ko obrak izaki, ezinbestekoa izango da artistak garai honetan bizi izan zituen kezka eta ardurez mintzatzea, bere obra guztiz determinatuko baitute. Horretarako iturri aproposenak artista berak azken urteetan emandako elkarrizketa eta ekimen biografikoak izango ditugu, izan ere aipatu bezala, euskal artista abangoardisten taldeko azken kide izanik eta euskal kulturari eskainitako ibilbide oso baten ostean, Nestor Basterretxearen figura azpimarratuko zuten ekimen ugari eman ziren batik bat 2000 urtetik aurrera.

2014an Nestor Basterretxeak laurogeita hamar urte zituen eta nahiz eta adinak agudezia, sormena, indar mentala baita hainbeste karakterizatzen zuen umore ona ez gutxitu, gorputzak ezingo zion erritmo sutsu horri jarraitu, azken urteetan osasun arazoak izan

⁵⁶ AGUIRRE, P., *Op cit.*, 122-123.orr.

⁵⁷ TRABAZO, L., “En Nebli, Oteiza y Basterrechea”, *Índice de Artes y Letras*, 139.zkia., Madril, 1960, 16.orr.

⁵⁸ H. WESCHER, *La historia del collage. Del cubismo a la actualidad*, Bartzelona, Colección Comunicación visual, 1980, 76.orr.

baitzituena⁵⁹. Berak aitortu bezala, “*la vitalidad en mí está absolutamente determinada al cerebro. Estoy muy vivo en cuanto a capacidad de creación*”⁶⁰.

Artista gau eta egun aritzen zen lanean -eguneko 16 ordu ere-, askotan gauetz esnatu eta lanean hasten omen zen, ordurik gabe⁶¹. Izan ere lanean barneratzeak, bere beldur handienari aurre egiten laguntzen zion, heriotzari. Datu azpimarragarria izango da nola azken urteetan emandako elkarrizketa guztietan, Nestor Basterretxeak heriotzaren gaia aipatu zuen. Guztietan errepikatuko zuen heriotzak sorrarazten zion beldurra, urduritasuna, gorrotoa ere. Obsesio, drama bihurtuko zitzaioela esan genezake. Izu horren kontziente zela, sentimendu itogarri hori lasaitu eta garaitzearen, artistak bere energia guztiak lanera zuzendu zituen⁶². Artea tresna salbatzaile, babesgarri bihurtu zitzaioela azaldu izan zuen, izan ere lanak hainbeste barneratzean ez zuen heriotzaren ideiarako lekurik gordetzen, distrakziorako gotorleku bihurtuz⁶³.

Esan bezala Nestor Basterretxeak ez zion inoiz sortzeari utzi. Are gehiago, artistaren izaeraren inguruan etengabe errepikatu izan ohi den ezaugarri bat hori bera zen, ahal izan zuen arte baliabide eta teknika guztietan barneratzeko erakutsi zuen gogo eta interesa⁶⁴. Hala zioen berak “*yo no he dejado de hacer nada de lo que hacía al principio: pintar, dibujar, collages... Pero ahí hay un peligro, porque como dice el refrán, "el que mucho abarca poco aprieta", y mi lucha es la de abarcar mucho apretando mucho ... lo que importa es seguir adelante*”⁶⁵. Alabaina, bizi indar horiek talka egin zuten bere osasun arazoekin -oxigeno makina baten beharra zuen eguneko 24 orduetan-, beraz

⁵⁹ EZQUIAGA, M., “Fallece Nestor Basterretxea, referente de la cultura vasca”, *El Diario Vasco*, Donostia, (2014-07-12), <http://www.diariovasco.com/culturas/201407/12/fallece-nestor-basterretxea-20140712103252.html> Azken kontsulta: 2016-04-09

⁶⁰ GARCIA IZAGUIRRE, A., *Op cit.*

⁶¹ REDONDO, M., “Nestor Basterretxea: "A mis 90 años, el trabajo no es un castigo; me hace sentirme más vivo"”, *Deia Noticias de Bizkaia, sl*, (2014-05-11), <http://www.deia.com/2014/05/11/ocio-y-cultura/cultura/nestor-basterretxea-a-mis-90-anos-el-trabajo-no-es-un-castigo-me-hace-sentirme-mas-vivo> Azken kontsulta: 2016-04-09

⁶² BURGUEÑO, A., “Basterretxea cree que las tendencias actuales no han superado “lo que existe””, *El País* Hondarribia, (2012-10-18), http://ccaa.elpais.com/ccaa/2012/11/18/paisvasco/1353244577_164027.html Azken kontsulta (2016-04-09)

⁶³ KAMIO, A., “Quiero acallar las voces que dudan de que a mi edad pueda seguir en activo”, *Gara*, (2011-01-29), <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20110129/245660/es/Quiero-acallar-vozes-que-dudan-que-edad-pueda-seguir-activo> Azken kontsulta: 2016-04-09

⁶⁴ AGUIRRE, P., *Op cit.*, 17.orr.

⁶⁵ “Néstor Basterretxea: "La vocación es maravillosa, pero también una tirana que te exige un cumplimiento y no te deja descansar”, *Diario de Noticias*, (2007-08-27), <http://www.noticiasdenavarra.com/ediciones/2007/02/12/mirarte/cultura...2> Azken kontsulta: 2015-11-10

mugikortasun fisikoa mugatua zuen. Esan dezakegu ez zirela oztopo nahikoak izan artistaren behar sortzailea agortzeko, baina bai hein batean mugatzeko. Eskulturak burutzea jada ezinezkoa zuenez, marrazketa eta *collage* teknikak izan zituen lagungarrien azken urte hauetan⁶⁶.

Lehen aipatu da marrazketak eta collageak Basterretxearen lanean zuten garrantzia. Marrazketak presente jarraitu zuen bere bizitza osoan zehar, egunero gutxienez bi marrazki egiten zituelarik⁶⁷. *Collage*ari dagokionez, bizitzan zehar landu zituen eskulturgintza eta marrazkiaren arteko bitartekari bezala ulertu behar ditugu ez eskulturgintzaren oihartzun nostalgiko moduan; hala, forma eta materialen arteko solasaldiaren errekurtso gutxiekin, adierazgarritasun handiena lortuz.

Artearen historiarekiko begirada irekiz, zahartzaro eta arazo fisikoek artista batengan eragin dezaketen teknika aldatzearen fenomeno aski ohikoa izan dela antzemango dugu. Gure kasuaren antzekotasunarengatik, Henri Matisse artistaren adibidea aipa genezake. H. Matisse (1861-1954) margolari frantsesak ere, bere azken egun arte sortzen jarraitu zuen, baina 1941 urtean, pairatzen zuen minbizia tratatzeko ebakuntza batengatik, gurpildun aulkiaren beharra izan zuen bere azkeneko hamalau urteetan. Ezgaitasun fisiko horrek pintzela erabiltzeko zailtasunak ekarri zizkion eta horrela pasa zen *collage* teknikara. Aurreko karrera artistikoan *collagea* edo paper ebakitzeak aurreproiektu edo saiakera bisual-plastiko bezala erabili bazituen ere, jasandako osasun arazo gogorraren ondorioz gure teknikan guztiz barneratu zen; baina nahiz eta iristeko bidea gogorra izan, azkenik *collage*aren teknika, artista berak aitortu bezala, bere burua espresatzeko era erraz eta zuzenena bihurtu zitzaion⁶⁸.

Interesgarria izango bazen ere, orain ezingo ditugu Matissen *collage*aren teknika eta emaitzak gehiago aztertu, hala ere gure lanaren harira, bi ideia azpimarratzen amaitu genezake. Lehena Basterretxea eta Henri Matissek pairatu zuten oztopo fisikoetatik harago, barrutik zetorkien sormen inpultsua zuzendu eta norbere bidea eraikitzerakoan, nola biek paper eta guraizearen jolasean aurkitu zuten baliabide eroso eta askatzaileena⁶⁹.

⁶⁶ REDONDO, M., *Op cit.*

⁶⁷ *Ibid.*

⁶⁸ STEINBERG, J., *Matisse and the Boundary Between Art and Decoration*, Michigan, University of Michigan, 2009, 7.orr.

⁶⁹ http://www.henri-matisse.net/cut_outs.html

Azken kontsulta: 2016-04-12

Alabaina bi artisten heldutasun garaiko *collage* hauek ez ditugu ezintasunetik etorritako edo beharturiko aukera moduan ulertu behar, baizik eta aurreko garaietako interes artistikoen ondorio edo fruitu eder bezala. Modu horretan, teknikak eskaini zien ahalmenean zentratuz, *collagearen* abiapuntu berdinetik artista bakoitzak bere bide propioa nola eratu zuen ikusi dezakegu, hau da kolore eta forma organikoen arteko arte dekoratibista Matissengan eta aldiz Basterretxeak forma eta planoen arteko konstrukzioen lanketa fina.

Nabarmentzeko bigarren ideia zera izango liteke, nola nahiz eta Matisse eta Basterretxearen *collageak* bere kabuz obra “amaitu” izan⁷⁰, askotan gure –ikusleonen begirada oraindik obra hauek bigarren mailakoak kontsideratzeko aurreiritzi okerra dugun jabetzea, hau da *collageak* artista berdin hauen olio-pintura edo burdinazko eskultura bat baino maila beheratuago batean estimatzea. Matissen adin nagusiko paperezko itzelezko lanak merezi duten bezala baloratzeko hainbat ikerketa eta esposizio bideratu izan dira azkeneko urteetan, esaterako New Yorkeko MoMa museoan 2014ko neguan eginikoa⁷¹. Beraz balorazio berrikuspen jarraibide hau kontuan hartzea interesgarria izango litzateke gure inguruan, baita oraingo lanean ere.

Basterretxearen azken *collagetara* bueltatuz, aurreko lanekin alderatuz gero desberdintasunak aurkituko ditugu, bai artistaren nahi artistikoetan baita obren izaeran. Aldaketa ez da lengoaia estilistikoan emango, abstrakzio geometrikoarengatik lortutako marka pertsonala mantentzen jarraituko zuen eta, hau baitzen errealitatetik harantzago iristeko baliabide egokiena, deskripzio figuratibo sinpletik aldentzen laguntzen zuena⁷². Bestalde gogoeta konstruktibista eraikitzaileak ere mantentzen jarraituko zituen, planoen gainjartze eta harremanekin lor zitezkeen konposizio eta espazio sentsazio interesaren bidetik. Aldiz, 2014ko aparteko *collage* hauetan aurkitzen dugun ezaugarri bereziena artistaren ardura metafisikoak, existentzialen adierazpena izango dira, “arte sozialetik” harago iritsiko direnak.

⁷⁰ STEINBERG, J., *Op cit.*, 14.orr.

⁷¹ <http://www.moma.org/calendar/exhibitions/1429?locale=es>

⁷² PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea...*, 29.orr.



4. irudia. *Laugarrena eguzki-lore*, 1975, Gineako egurra, 96 x 108 x 13cm

Esan bezala, urtarriletik heriotza egunera bitarte zehaztu dezakegun epealdian, hogeita hamar collage burutu zituen eta horietatik erdiak baino gehiagok zirkulu formarekin zerikusia dute. “Zirkulura buelta” beraz. Aurreko atalean landu bezala, zirkunferentzia forma askotan erabili izan zuen artistak, esaterako 1960 urteko *Meridiano* eta *Gauak* edo 1975 urtean eginiko lau *Eguzki lore* eskulturak beste askoren artean (4. irudia).

Obra zirkular hauengan begi-bistakoa izango da aipatzen genuen euskal herrikoi esentzia popularra, bere ibilbide artistikoa ia osoan landutako izaera sozialeko artearen adibide bikainak bihurtuz⁷³. Arteak euskal gizarteari irudi propio bat eskainiko zion, errekonozimendu eta enpatia bidetik, objektu eta euskal arimaren artean ikus-identitate bat sortuz. Alabaina, hautaturiko collage hauetan, izaera sozial horretatik apur bat aldendu beharko gara eta hala, “zirkuluarenganako bueltaren” kezka artistikoa artistaren alde psikologikoarekin lotu⁷⁴.

Pairatzen zuen osasun egoerarekin batera, bi gertaera mingarrik gogor jo zuten artistaren aldartea azkeneko urteetan. Batetik bere Txabi Basterretxea semearen heriotza, 2010eko azaroan minbiziak eraman zuena⁷⁵ eta bigarrenik 2014ko maiatzaren 14an Maria Isabel Irurzun Urkia bere emaztearen heriotza, Argentinako erbeste garaian ezagutu eta 1952an ezkondu zirenetik beti alboan izan zuena⁷⁶. Bi kolpe hauek biziki atsekabeturik utzi zuten artista.⁷⁷ Horregatik, egoera pertsonal gogor horri aurre egiteko saiakeraren emaitza bezala uler genitzake aurrean ditugun obrak. Hala, kanpora -herrira- begiratu beharrean, barnerako begirada intimista azalduz. Esentzia emozional mingarri hori ikusgarri izango dugu esaterako serieko ondorengo bi collage hauetan, kolore ilunek eta zirkuluaren barne aurkitzen diren elementuek sare moduko bat osatzen dutela. Batik bat *B collagea* (6.

⁷³ *Ibid.*, 51.orr.

⁷⁴ EiT.B. (2013-03-20). “Repaso a los 60 años de trayectoria del escultor Nestor Basterretxea” (artxibo bisuala). https://www.youtube.com/watch?v=_oDpgAbEypY Azken kontsulta: 2016-04-04

⁷⁵ KAMIO, A., *Op cit.*

⁷⁶ PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea...*, 15.orr.

⁷⁷ EZQUIAGA, M., *Op cit.*

irudia) serie osoko ilunena eta tenebristena bezala izendatu dezakegu; bertan ondorengoekin kontrastea eginik, zirkuluaren mugetik at beste espazio bat definituko da non kubo edo laukizuzen tolestu edo bihurritu bat gogorarazten diguten ilara nahasiak aurkitzen diren, zirkulu protagonistarekin solasaldi bat burutuz.



5. irudia. (A) *Izenbururik gabea*, 2014.



6. irudia. (B) *Izenbururik gabea*, 2014.



7. irudia. Arantzazuko kriptarako bozetoa. *Izenbururik gabea*. 1952-1953.

Nestor Basterretxeak behin eta berriro zirkulura iristen zela adierazi izan zuen azkeneko urteetan⁷⁸, egoera espiritual zehatz baten ondorioa izango zena. Zioen moduan, behin zirkulura iritsi zenean, bertan geratu zen geldia, mugaturik, nolabaiteko “krisi” artistiko batean. Haatik, 2014ko maiatzaren 11an argitaratu zen elkarrizketa batean -emaztea hil baina egun batzuk lehenagokoa- artistak zirkuluak ekarri zizkion kezka artistiko horietatik askatzea lortu zuela adierazi zuen pozez. Hala erantzun zuen Nestor Basterretxeak aipaturiko krisialdia gainditu ote zuen galdetu ziotenean: “¿Sabes quién me ha ayudado a conseguirlo? Uno de mis nietos pequeños. Parecía que era ya el fin, pero no quería abandonar, veía que tenía capacidad mental y muchas ganas de crear. Yo llegué al círculo, así como Oteiza llegó al vacío, y claro, ¿después del círculo qué? Y, de repente, uno de mis nietos me enseñó uno de sus dibujos en el que aparecía un dinosaurio que tenía como un ala, como una chepa. Le pregunté: ¿qué es eso? 'Su mujer', me contestó. Entonces, me di cuenta de la libertad que tienen los niños a la hora de crear, y pensé que eso era lo que yo necesitaba, recurrir a todos los estilos que tenía un poco

⁷⁸ TECNUM. (2011-06-16). *Op cit.*

*olvidados. Una gran parte de mi vida he sido muy severo para las formas, esa seriedad la he sustituido, por decir así, por una explosión de libertad y eso me alegra*⁷⁹.

Gure *collage*ak interpretatzeko argibide guztiak adieraziko zituen artistak hitz garbi hauetan. Batetik bere mentore eta lagun fidela izan zen Oteiza aipatzen digu, behin “hutsera” iritsita, (noraezean ibiltzearen beldurrez) artea abandonatzeko erabakia nola hartu zuen (1959)⁸⁰; baina aldiz Basterretxeak bera behin zirkuluaren aurrean geldirik aurkitu zenean, behin-betiko sormen amaiera baten beldur, berriro ere bere barneko indarra suspertu eta honek bide berriei atea ireki zizkiola adieraziko digu. Artistaren izaera sortzaile bereziaren beste agerraldi bat beraz. Bestalde, ohartarazi omen zen ordurarte fidel izan zuen lengoia formalista zuhur bera zela sormena oztopatzen ari zizkion kateak, beraz berriro ere askatzeko, oroimenean ahazturik utzi zituen estiloetarako buelta kontsideratuko zuen.

Azalpen honekin, obrak maiatza baino lehen datatzearekin batera, justifikagarria izango da gure *collage*etan aurkitzen dugun oihartzun espresionista, Argentinako urteetan gehienbat José Gutiérrez Solana eta José Clemente Orozco muralistarengandik jaso zuen eragina gogoraraziz⁸¹. Moreno Galván-ek seminario testu batean azaldu bezala⁸², bere existentzia ideien aurretik jarritz manifestatzen den pertsona da espresionista bat. Nestor Basterretxeak hala jardun zuen 50.hamarkadan, gerra eta erbeste garaitan bizitako itotasunaren isla bihurtuz bere margoak (7. irudia). Gure artelanetan ez dugu lehen garaiko espresionismo figuratiboarenganako itzulia aurkituko, lengoia formalak oraindik forma geometriko abstraktuez baliatuko baitzen, baina bai berriro artistaren kezka existentzialak.

Gainera, estilistikoki ere aberastasun kromatikoa bizia nabarmenduko da, 90.hamarkadan eginiko kultura azteka eta mayenganako ikerketa sakona gogoraraziko diguna, garai hartako obretan ere kolorearen indarra bistakoa izan baitzen. Kultura aborigenen potentzial espresiboa aztertu nahi izan zuen orduan Basterretxeak, aurretik Euskal herrialdearen jatorriarekin egin zuen era berdinean beste komunitate primitibo batekin⁸³.

⁷⁹ REDONDO, M., *Op cit.*

⁸⁰ ECHEVERRIA PLAZAOLA, J., *Op cit.* 325.orr.

⁸¹ PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea...*, 12-13.orr.


⁸² MORENO GALVÁN, J. M., *Op cit.*, z/g.

⁸³ AGUIRRE, P. *Op cit.*, 150-151.orr.

Beraz obra hauetan, oroimenean preso, ahazturik zituen adierazpen bideak berraktibatu egin zituen, sormen eztanda bat eraginez. Azken aldian alboraturiko koloreen indarra berreskuratu zuen Basterretxeak, hala gorria, horia edo more gama puru eta mateak erabiliko zituen eta hauek sortzen zuten planimetria, hondoko zirkunferentziako dimentsioarekin hartu-eman dinamiko bat eragiten zuten, perspektiba berri bat sortuz.




8. irudia. (C) *Izebururik gabea*, 2014.



9. irudia. (D) *Izenbururik gabea*, 2014.

Apurka ikusten hasi garenez, protagonista ditugun hamasei *collageak* A3 (297 x 420mm) neurriko kolore zurizko kartulina dute hondo edo lehengai -bakarra izan ezik- eta hauetan zirkulu bat inskribatuko da, hori izango da seriearen premisa. Zirkuluaren protagonismoarekin bat, guztietan bestelako formak txertatu zituen artistak, era diagonalean askotan, forma idealarekin haustura, tentsio, elkar eman edo espazio sentsazioa sortuz. Hala esaterako, ondorengo *E* eta *F collagetan* (8. eta 9. irudiak), nukleoa den zirkunferentziari elementu kubikoak gainjarriko dizkio era okerrean, diagonalean, aurreko oreka ideal horri erronka eginez, eta kolore bizien adierazpen ahalmena gehituz, espazio eraiketa eraginkor bat planteatuko digu Basterretxeak. Desberdina izango da aldiz *G* deituriko lana (10. irudia) bertan espazio eta perspektiba sentsazioa ez baita zirkuluaren apurketarekin emango, baizik eta muga horien barruan beste dimentsio berri bat sartzen. Kasu honetan, inbestigazio espazial horretarako zinta itsasgarriaren distira eta testuraren baliabideaz lagunduko zen eta hala norabide gabeko sare moduko bat sortuko zuen, desoreka mundu bat zirkulu forma orekatsuenan sartuz.



10. irudia. (E) *Izenbururik gabea*, 2014.



11. irudia. (F) *Izenbururik gabea*, 2014.



12. irudia. (G) *Izenbururik gabea*, 2014.

Hortaz ikusi bezala, erabilitako materialak batik bat kartulina, paper inprimatua, tinta errotulagailua eta koloretako arkatzak dira, batzuetan ikusi bezala zinta itsasgarriak sortzen duen testurekin jolasten duela ere; eta erabilitako teknika ebakidura, itsasdura izango da, marrazkigintzarekin kontrastea sortuz. Hautaturiko koloreak eta elkarren arteko kontrasteak guztiz indartsuak, energikoak dira, gogorak ere batzuetan, hala hondo lauaren barnean protagonismoa baina baita harmonia edo oreka irabaziz, guztiarekin osotasun bat sortuz. Aurreratzen genuen bezala, *collage* hauen artean ere desberdintasun handiak aurkitzen ditugu, artistaren zantzu espresionistarekin lotu genezakeena, alegia momentuko barne indar edo animoen arabera emaitza desberdinak izatea, formen kolore eta erritmoan antzemango duguna.

4. AZKEN ONDORIOAK

“Nestor Basterretxea eta *collagea*, buelta berri bat” izenburuarekin, aditzera eman nahi zen ondorengo lanaren mamia, bertan sintetizatu daitezke eta orain arte aztertutako puntu esanguratsuenak.

Batetik, buelta, bira, zirkunferentziaren ideiarda eramango gaitu, artistaren forma pribilegiatua gogora ekarriz, azken artelanen protagonista formala bihurtu zena, baina zeinu horren atzean esanahi sakonak adierazi nahiko zituen artistak. Bestetik buelta, itzuli moduan ulerturik, iraganari egingo lioke aipamen, hots, inoiz artistak ahaztu ez zuen euskal esentziaren sorkuntzarako atzera begiradari, zein bere ibilbide artistikoaren

oinarria gogoraraziko zigukeen. Baina oraingoan, itzulia ez da soilik gizartearen iragan batera bideratuko, artistaren barne itzuli pertsonala ere izango da, horregatik “berri” konnotazioa, zirkuluak izaera berri bat ere irabazi zuen eta. Artistak bere barne esperientzia ahaztuetan aurkitu baitzuen indarra aurrera egiteko, sormen bidegurutze oztopatuak garaitzeko; eta paradoxikoki aurrera eraman zuen atzerako pausoa, behin alboraturiko esperientzia estetikoak gogora ekartzea izan zen, kontua historia lineal bat izan beharrean, ziklikoa bihurtuz.

Asko izan dira airean, landu gabe geratu zaizkigun ideiak. Izan ere Nestor Basterretxearen izaera sortzailearen ondorioz, bere produkzio artistikoa kontaezina bihurtu da egun, hori dela eta, kontuan izatekoa dugu landutako *collageak*, artistaren azken urteetako ekoizpen osoaren zati txiki bat dela soilik. Alabaina, begirada zoratu gabe, hautaturiko obrak guztiz aberatsak izan zaizkigu hainbat ideia garrantzitsu azpimarratzeko.

Modu horretan, artistaren alde biografikoa edo ibilbide artistikoa txertatzeaz gain, *collage* teknikarekin zuen harremana eta honek eskaintzen zizkion aukera plastikoak lantzea izan da lanaren helburu nagusi bat. Bigarren xedea aldiz, artistaren zahartzaro egoerari hurbilpen bat eginez, azken urteko obrak era ahalik eta zuhurrenean interpretatzen saiatzea izan da. Hala, bere lan desberdinen ezagutzaren bidez, Basterretxearen ekimen artistikoa normalean ezagutarazten zaiguna baino askoz ere aberatsagoa dela ziurtatuz eta artistak merezitako balorapen fidela bideratu nahian.

5. BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, P. (kom.), *Nestor Basterretxea: forma y universo* (erakusketa Bilboko Arte Ederren Museoan, 2013ko otsailetik maiatzera), Bilbo, Bilboko Arte Ederren Museoa, 2013.
- ARTAMENDI, MUGUENA, J. A., “El arte de Nestor Basterretxea”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 34.zkia., 31, 2, (1986), Deusto Unibertsitatea, Bilbo.
- BANDRÉS GOLDÁRAZ, M^a A., *El collage como instrumento de rescate: realidad, medios de comunicación de masas y memoria. Implicaciones en la práctica artística*, Leioa, Facultad de Bellas Artes, Universidad del País Vasco, 2014.
- BASTERRECHEA, N., “La libertad se llama America”, in ASCUENCE ARRIETA, J.A.; SAN MIGUEL, M. L. (koor.), *Los hijos del exilio vaso: arraigo o desarraigo*, Donostia, Saturraran, 2004.
- BASTERRETXEA. N., *Crónica errante y una miscelánea*, Zarautz, Alberdania, 2006.
- CATALAN, C., *Nestor Basterretxea. Esculturas - collages - dibujos - grabados*, (erakusketa Iruñako Galeria Lekunen, 1996ko maiatzetik uztaileira), Iruña, I.G. Castuera, 1996.
- ECHEVARRIA PLAZAOLA, J., *La finalidad de Arte. La obra y el pensamiento de Jorge Oteiza: arte, estética y religión*, Bartzelona, Universitat Pompeu Fabra, 2008.
- ELBUSTO CABELLO, H. (zuz.), *Nestor Basterretxea* (erakusketa Irungo Menchu Gal Esposaketen aretoan, 2013ko martxotik uztaileira), Irungo Udala, Irun, 2013.
- FER, B.; BATCHELOR, D.; WOOD, P., *Realismo, Racionalismo, Surrealismo. El arte de entreguerras (1914-1945)*, Madril, Akal, 1999.
- GOLVANO, F., *Disidencias otras: poéticas y acciones artísticas en la transición política vasca: 1972-1982*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2005.
- GOLVANO, F. (kom.), *70ko Laborategiak. Poetikak / Politikak eta Modernitatearen krisia 70eko hamarkadako Euskal Herrian*, (erakusketa sala Rekalde erakustaretoan, 2009ko maiatzetik irailera), Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia/Rekalde Aretoa, 2009.

- GUASCH, A. M., *Arte e ideología en el País Vasco: 1940-1980*, Madril, Ediciones Akal, 1985.
- H. WESCHER, *La historia del collage. Del cubismo a la actualidad*, Bartzelona, Colección Comunicación visual, 1980.
- MORENO GALVÁN, J. M., *Nestor Basterrechea*, Madril, Sala Neblí, 1960.
- OTEIZA, J., *Quousque Tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*, VEGA, A. (koor.), V. Ed., Alzuza, Fundación Museo Oteiza Fundazio Museoa, 2007.
- PLAZAOLA ARTOLA, J., “El primer arte abstracto”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 44, 2 (1999), Deusto Unibertsitatea, Donostia.
- PLAZAOLA, J., *Nestor Basterrechea. Artistas Españoles Contemporaneos*. Madrid, Servicio de publicaciones del ministerio de Educación y Ciencia, 1975.
- SAN MARTÍN, F. J.; MORAZ, J., L., *Oteiza Laboratorio de papeles*, Orkoien, Fundación Museo Oteiza Museo Fundazioa, 2006.
- SARRIUGARTE GÓMEZ, I., “El arte como herramienta para la construcción de una identidad nacional: el caso vasco”, in BAREMENDI, J.; BAZ, M^a. J. (koor.), *Iº Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*, Logroño, 2007.
- STEINBERG, J., *Matisse and the Boundary Between Art and Decoration*, Michigan, University of Michingan, 2009.
- TRABAZO, L., “En Neblí, Oteiza y Basterrechea”, *Índice de Artes y Letras*, 139, Madril, 1960.
- VADILLO EGUINO, M., “La búsqueda de una identidad estética en el País Vasco. La creación de un nuevo imaginario vasco (1960-1980)”, in *Congreso Internacional Imagen Apariencia*, Universidad de Murcia, 2008ko azaroan, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009.
- JIMENEZ DE ABERASTURI APRAIZ, E. (koor.), *Acercarse a Oteiza*, Donostia, Editorial Txertoa, 2004.
- ZUAZNABAR, G., *Piedra en el Paisaje*, Alzuza, Fundación Museo Jorge Oteiza Fundazio Museoa, 2006.

-MUÑOZ, J. (koor.), *Nestor Basterretxea: bolumentria arkitektonikoak / volumetrías arquitectónicas*, (erakusketa Donostiako San Telmo Museoa, 2003ko apiriletik ekainera), Donostia, Donostia Kultura, 2003.

WEBGRAFIA

-EiTB. (2013-03-20). “Repaso a los 60 años de trayectoria del escultor Nestor Basterretxea” (artxibo bisuala), https://www.youtube.com/watch?v=_oDpgAbEypY

Azken kontsulta: 2016-04-04

-GARCIA IZAGUIRRE, A., (2012-05-25). “Nestor Basterretxea” (artxibo bisuala), <https://www.youtube.com/watch?v=Kt8hPempWjI> Azken kontsulta: 2016-04-08

-TECNUM. (2011-06-16). “Nestor Basterretxea: Del plano al espacio (HD)” (artxibo bisuala), <https://www.youtube.com/watch?v=AuGksg5-7oE> Azken kontsulta: 2016-04-08

-http://www.henri-matisse.net/cut_outs.html Azken kontsulta: 12-04-2016

-<http://www.moma.org/calendar/exhibitions/1429?locale=es> Azken kontsulta: 2016-04-03

-<https://www.museobilbao.com/exposiciones/nestor-basterretxea-200> Azken kontsulta: 2016-20-21

-http://www.sansebastianfestival.com/secciones_y_peliculas/7/623773es Azken kontsulta: 2016-04-21

HEMEROTECA

-BURGUEÑO, A. “Basterretxea cree que las tendencias actuales no han superado “lo que existe””, *El País* Hondarribia, (2012-10-18), http://ccaa.elpais.com/ccaa/2012/11/18/paisvasco/1353244577_164027.html Azken kontsulta (2016-04-09)

-EZQUIAGA, M., “Fallece Nestor Basterretxea, referente de la cultura vasca”, *El Diario Vasco*, Donostia, (2014-07-12),

<http://www.diariovasco.com/culturas/201407/12/fallece-nestor-basterretxea-20140712103252.html> Azken kontsulta: 2016-04-09

-GOLVANO, F., “Basterretxea, un artista moderno y multidisciplinar”, *El Diario, sl*, (2014-07-12), http://www.eldiario.es/norte/vientodelnorte/Nestor_Basterretxea-pintor-escultor-cineasta-nacionalismo-moderno-Gaur-Equipo_57_6_280731931.html Azken kontsulta: 2016-04-09

-LARRAURI, E., “Me interesa todo. Me he preocupado de no encerrarme en ser escultor”, *El Pais*, Bilbo, (2008-10-02), http://elpais.com/diario/2008/11/02/paisvasco/1225658413_850215.html Azken kontsulta: 2016-04-09

-“Néstor Basterretxea: "La vocación es maravillosa, pero también una tirana que te exige un cumplimiento y no te deja descansar””, *Diario de Noticias*, (2007-08-27), <http://www.noticiasdenavarra.com/ediciones/2007/02/12/mirarte/cultura...2> Azken kontsulta: 2015-11-10

-REDONDO, M., “Nestor Basterretxea: "A mis 90 años, el trabajo no es un castigo; me hace sentirme más vivo””, *Deia Noticias de Bizkaia, sl*, (2014-05-11), <http://www.deia.com/2014/05/11/ocio-y-cultura/cultura/nestor-basterretxea-a-mis-90-anos-el-trabajo-no-es-un-castigo-me-hace-sentirme-mas-vivo> Azken kontsulta: 2016-04-09

-GASTACA, J.M. “Muere Nestor Basterretxea. La raíz vasca de un creador universal”, *El Pais*, Bilbo (2014-07-12), http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/07/12/paisvasco/1405162287_442849.html Azken kontsulta: 2016-04-21